


ED GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27



**ihauteriak
atzo eta gaur**



kide

APAINDURA

Cercas Bajas, 27

Tfnoa: 14 41 95

GASTEIZ

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13

☎ 28 79 42

GASTEIZ



SANTI

PARAGUAY 17

☎ 270790

GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA

HARATEGIA



Florida Azoka
2 eta 3

☎ 13 24 48

Abastos Azoka
2 eta 3

☎ 26 78 97

GASTEIZ



JOSEBA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA

El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89

GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**

*aukerarik zabalena
kalitaterik onena*


**lhauteriak:
parrandarako aitzakia
galanta**

15. orrialdea



**Izar berriak
Mendizorrotzako
zeruan**

24. orrialdea



**Ruper Ordorika inoiz
aitortzen ausartu ez
dena**

inkestak

...eta askoz gauza
gehiago.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Apaiztegitik zuzenean

DAKIZUENEZ, geu guztiona den GEU GASTEIZ aldizkaria Bartzelonako Olinpiadekin batera etorri zen mundura. Ordutik hamaika hitz, marrazki, argazki eta publizitate tarte agertu dira orrialde hauetan. Batzuetan, ondo aritu gara; beste batzuetan, aldiz, apur bat gaizkiago, baina beti izan dugu buruan helburu argi bat: EUSKARAK Gasteizen eta Araban merezi duen lekua hereganatzea.

Orain arteko langileok izan ditugun lan baldintzak ez dira onenak izan. Halere, atzokoa atzo. Egun GEU elkartearen langile eta kide guztiei esker, geroa geure alde ikusten dugu. Oraintxe Apaiztegitan gaude. Beraz, esan beharrik ez dago lerro hauek mamitzen ari naizela behiala apezgaiez beterik egon ziren ormeetatik. Hemen hiru gelatxo ditugu. Ez pentsa hutsik daudenik, beharrezkoak ditugu baliabide teknikoak hemen baititugu dagoeneko: ordenagailuak, faxa, telefonoak...

Neguko goiz polit honetan eguzkia gelen leihoetatik sartzen da, eta hemendik GEU-koek Gasteiz osoa menderatzen dugu; ikus-pegia ederra benetan. Eskueran ditugu Gasteizko eleiz zaharretako dorreak, Olarizu eta Zaldiaran mendiak, sustrai sakoneko San Martin auzoa... Beno, literatura idazleentzat. Zuek, irakurleok, gure lanaren pizgarri zarete eta, aldi berean, gure arduren iturri. Hortaz, zuengana zuzenduko naiz. Zuek, hemengo leihoetatik ikusten dugu hirian, Gasteizen, bizi zarete auzo guztietatik sakabanaturik. GEU elkarteak betidanik argi izan du aldizkari hau gasteiztar euskaldunok elkar ezagutzeko tresna ezin hobea dela. Beraz, eta baliabide tekniko berriak tartean egonik, zuek eta zuen nahiak hobeto ezagutu nahi ditugu.

Lehen esan bezala, aldizkari honek ez du zentzurik zuek gabe. Gauzak horrela, zuen



iritzia jaso nahi dugu. Horretarako datorren hilean orriotan inkesta bat izango duzue betetzeko. Bertan, kritikak, ideia berriak edo proposamenak geureganatzea gustatuko litzaiguke. Gure buruarekin kritikoak izan beharra dugu, ez didazue esango aldizkaria ezin hobetu daitekeenik. Hutsune horiek zuekin batera konpontzea erabaki dugu, anima zaitezte martxoko inkesta hori betetzen eta alde zuretik, mila esker.

Bukatzeke, gure eskerrik beroenak eman behar dizkiegu gurekin dauden merkataritza-etxe eta GEUko kide guztiei, haiei esker eguzkia argiago ikusten dugu eta. Dena den, gure helburua betetzeko bidea hasi baino ez dugu egin, eta zuetako bakoitzak publizitate tarte, kide edo irakurle bat gehiago lortzen badu, geu guztion nahia hurbilago hurbilago sentituko dugu: Gasteiz euskalduna, aspaldian izan zen bezala. Aupa eta cutsi goiari, bestela, 1996ko Atlantako Olinpiadek harrapatuko zaituzte eta!

Ismael Diaz de Mendibil

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

Pedro Asua, 2 3.a
Tfnoa 22 21 53



elkartearen babesarekin

5.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Zuzendaria: Karlos Etxenausia **Erredakzio-burua:** Ismael Diaz de Mendibil **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Lorea Zurimendi, Miel Anjel Elustondo

Hizkuntz arduraduna: Inaxio Lopez de Arana **Komikia:** Inigo Sarasola **Marrazkiak:** Aitziber Iriondo **Maketazioa:** Alex Badillo, Asier Perez de Karkamo **Publizitatea:** Karlos Fdez. de Betoño **Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Asier Perez de Karkamo, Lorea Zurimendi **Kolaboratzaileak:** Txipi Ormaetxea, Oier Zulaika, Xabier Etxaniz, JuanJose Kastresana, Inaki Gauna, Txabi Arnal Gil, Mikel Garmendia

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

Pisua:

ZKIA:

Kalea mintzo nik zurekin ligatu

nik zurekin ja-jai !



JABETUAK gara zein konplexuak eta nahasiak diren giza harremanak. Oraingo honetan, harreman konplexu orein arlo aipagarri bat aztertu dugu: ligeak. Hona hemen, bada, ligatze kontu horiei buruz hainbat gasteiztarren ahotik jaso ditugun iritziak.

1. Asko ligatzen al da Gasteizen? Zuk asko ligatzen al duzu?

2. Zeintzuk teknika erabiltzen dituzu?

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzu



PURI CUENCA
ilargitarra

1. Ez gehiegi. Siberia-Gasteizko hotzak moteldu eta kikildu egiten gaitu. Beraz ez ditugu gure barne sentimenduak azalerazten.

2. Ilargiaren kokapenaren arabera (ilbeteak erraztu egiten du). Beti sorginkeriez baliatzen naiz



BERTSOAK

GAIA:

Santa Ageda

EGILEA:

Argine Irizar

DOINUA:

hamarreko handia



**Elur melur ez
nauk hire beldur,
badiat etxean
arto eta egur**

Hilaren bian kandelario bostean Santa Ageda beti gaude prest dibertitzeko ta ateratzeko kalera neska-mutilen talde jator bat etxe batetik bestera dirua eta jakiak bilduz gure arbasoen antzera euskal ohiturak gogoan eta ahoan beti euskara

Aurtengo jaia ez da izango besteak bezalakoa pertsona on bat faltako da ta horretan dago gakoa zoritxarrez gaixotasun batek moztu zion gaztaroa Ez zaitugu inoiz ahaztuko baina bizitza aurrera doa bi bertso hauek gutxi izan arren zuretzat dira Otxoa.



"ARGOS"
ZURE BURUA
EZAGUTZEKO
TOKIA

- Astrologi aholkularitza
- Kizol eta terapia-masajea
- Bete-beteko terapiak
- Astrografia
- Erreflexoterapia
- Ikastaroak

Gasteizko hiribidea, 89, (atzekaldea)
Tfno: 242671 / 229329

ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 27. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 **20600 EIBAR**



ALVARO DIAZ
taekwondo
irakaslea

1. Denek ezetz diote. Hala nahi nuke, baina... badakizu!

2. Hoberena, ezustean harrapatzea da. Niri, orain arte ez dit oso emaitza onik eman. Auskalo!



MARIXA OSSES
Bulkanologoa

1. Deus ez! Baina nik, artizarraren eraginpean egonik, aise eta erraz ligatzen dut.

2. Aurrena, bere horoskopoaz galdetzen diet. Horren arabera jokutzen dut beti.



IKER ORTIZ DE ZARATE
ikaslea

1. Ez, gehiegi ez. Egia esan nik nahikoa ligatzen dut. Nahikoa, besterik ez!

2. Ez dut teknika berezirik erabiltzen. Aukera dudanean aprobetxatu egiten dut. Honekin nahikoa da.



NAIARA ARANGUREN
ikaslea

1. Bai, festetan edo jaiegunetan batez ere. Nik neuk ez dut gehiegi ligatzen. Nire lagunek bai ordea. Haiek lortzen badute ez da horren zaila izango.

2. Begirada sakonek asko esaten dute. Halere, inportantea zu zeu izatea da.



ARIANNA GARCIA
ikaslea

1. Bai, nahikotxo ligatzen da; halere, beste hiri batzuetan baino apurtxo bat gutxiago. Ez asko halere.

2. Jator portatu. Besteengandik ezberdina izan eta jazkera zaindu. Horrez gain, begirada sakonak oso inportanteak dira.

Irakurle maitea:

**Hemendik aurrera egoitza berrian
(apaiztegi zaharrean) aurkituko
gaituzu.**

Hona hemen helbide berria:

**Pedro Asua 2, 3. solairua
91. bulegoa**

on izan!

22 21 53

*Ehiza • Arrantza
Kirolak*

BELAKORTU

Frantzia kalea, 20



**MATRICKULA
ZABALLIK**

MUGABARIK
HIZKUNTZ AKADEMIA


frantsesa • ingelesa • euskara •
haurrak eta helduak

MOLINUEVO PAREAN

13 95 86

Nolako idazkera, halako izaera

RUPER ORDORIKA



*Dighe hache Mendebaldeko Euzkadi
Beladak hitzen dituen. Horiaren hitzen
gaurko egunari iram dute Bizkaian
munduan. Halere, aha aha ikentako kantu
haratara gure artean desagertuko zorian
dago gure de...*

Ruper Ordorika

AZKEN bolada honetan ahotan hartuta izan dugu Ruper Ordorika. Izan ere, abenduan, Durangoko azokan, "Mendebaldeko baladak" izeneko bere azken lana aurkeztu zuen. Erronka honi aurre egiteko lagun ezin hobeak aurkitu ditu oñatiarrak, Joseba Tapia eta Bixente Martinez (Oskorrikoa) hain zuzen ere. Baina, jakin nahi al duzue Ruper Ordorika nolakoa den barnebarnean? Iñaki Gauna grafologoaren luma zorrotzak eskainiko digu musikariaren ikuspegi izkutua ondorengo lerrootan.

dura aztertzea pertsonaren ezaugarri bereizgarrien antzemateko.

Oraingo honetan Ruper Ordorika daukagu gonbidatu. Ruperen barruko mundua eta bizitza oso

aberatsa eta bizia bada ere distantziak markatzen ditu eta horrek ez du bere buruan sartzeko bidea errazten. Esan genezake nolabaiteko jokaera aristokratikora jotzen duela. Halere, bere burua babesteko joera badu ere, lehenengo barrera gaindituta bidezkoa da bere barruko munduan sartzea.

Pertsona sentibera izan arren, afektoak eta emozioak kontrolpean izatea dauka gustoko eta mundu intimoari behar besteko garrantzia eman beharrean arlo profesional eta sozialari ematen dio lehentasuna.

Indarrak alperrik botatzea ez zaio gustatzen eta neurritz erabiltzen ditu bere baliabideak, eskura duen energia ahalik eta gehien kontzentratuz. Zehaztasuna eskatzen duten lanetarako gaitasun aparta dauka eta ardura haundiz burutzen ditu eginbeharrekoak, zuhur eta inteligentziaz jokatzuz.

Ruperengan gusto estetikoa eta artistikoa, sentsibilitatea eta barruko egonezina egoki uztartzen dira, eta ondorioz originaltasun handiko lanak eskaintzen dizkigu. Izan ere, abesgintzarekin daukan harremana oso pertsonala da: abestien bitartez bere buruarekin hitz egiten du bere barruko gogoetak eta sentiberatasuna guztion aurrean agertuz. Musika gabe, agian, bere erraiteako garrasiak, kexkak eta bihotz-hesturak zikiraturik geratuko lirake. Horregatik, Ruperen kantuak entzuterakoan musikaz gozatzeaz gain Ruperen alderdi intimoarekin harremanetan sartzeko parada ere izaten dugu.

Une honetan ilusioz beterik dago, kanpora eta geroari begira, arrakasta lortzeko gogo handiekin eta horren alde borrokatzeko prest. Espero dezagun lan berri honekin Ruperek merezi eta behar duen itzala lortzea.

Iñaki Gauna

IDAZKERA EZ DA besterik gabe egingen den keinu grafikoa. Idazketaren oinarrian hainbat alderdi dautza eta horien artean, ezpairik gabe, neurologiaren arloko arrazioiak aipatu behar dira.

Eskuz egindako edozein idazki adierazgarria izanik ere, izenpea bereziki esanguratsua izaten da, bertan benetako nortasunaren eta barru-barruko izaeraren lekuko fidagarriena topatzen baitugu, inolako mozorrorik gabe. Izan ere, testuan zehar gure nortasun soziala adierazten dugu eta sinaduran, berriz, gizartearen eraginak alde batera uzten ditugu eta geure ezaugarri berezkoenak agertzen ditugu, keinu inskonzienteena baita izenpearena.

Gizakia gizarte-animalia den aldetik testua nahiz izenpea aztertzen dira zientzia honetan azterketa sakona egiteko. Halere, lehen esan bezala, nahikoa izaten da sina-

B I D E O K L U B A

Filmak • Posterrak • Karatulak • CD • **ASTEARTERO: IKUSLEAREN EGUNA**


De Cine

HOSPITALAREN PLAZA (De los Guardias) 2 • Tfnoa: 28 63 64

B I D E O K L U B A

 **GASTEIZ
BODEGA**

JOSE MARDONES 12



Autoen kexa

LEHENGO ASTEAN, beti bezala nere despiste sakonean murgilduta, espaloian zehar erdi bertsotan nindoala, beltzez jantzitako auto bat hurbildu zitzaidan eta...

- Aizu? Zu al zara GEU GASTEIZ al-dizkarian *Zurrumurruak* zutabea idaztera ausartu zerana?

- Halaxe da.

- Eta kontatuko al zenituzke Autooi gertatutako bi albiste bitxi?

- Bai horixe!

- Bere bi begi handi eta nekatuek halako zartada bat sortarazi zidaten, baina karpetatxoa zabalduta, boligrafoa eta papera eskuratu eta...

- Bota!

- Ba... begiera -apal eta pausatsu- duela pare bat hilabete inguru, Nueva Fuera edo beste zenbait kale hartu eta Alde Zaharra dastatuz Kubo kalea zeharkatzeko ohitura genuen Autook ezuzteko galanta eraman genuen... goizetik gauera kale hartako norabidea aldatu baiziguten. Hura amorrua!

Egingo ez dutenik...! Alde Zaharretik Arriagarako ate guztiak itxita. Zer egin ordea?! Ba, Frantzia kalera jaitsi, itzuli ederrak eman eta bakoitzak ahal zuen moduan helmugaratu behar. Ondorioak? -jarraitu zuen solaskide bereziak- erdikal-deko kaleetan izugarritzko auto pilaketak sortu ziren, ingurugiroa pozoinduz, turutotsekin hiria erdibituz, larrialdiatarako irteerak oztopatuz... Semaforoak ere azkarrago gorritzen zitzaizkigun (Amurizak ikusi balitu!). Egun batez, Olagibel eta Lakuako irteerara bidean ordu erdi pasatu nuen. Eta gutxi balitza, kolkoan neraman gizaseme morroskoa bide guztian *mekauenlaka*. Nik, ordea, tripak ketan... Idatzi ezazu eta agindu Cuerda jaunari, Kuboko krimena bideratu duen arduradun burugabea gartzelaratu dezala. Azkar! Eta are gehiago, -gaineratu zidan auto beltzak- hara hor bigarren auzia. Erregeak ezkerotik nolako isunak jartzen dizkiguten...! Informatizatuak aizua! Huskeriaren bat egin dugula... OTaren ordua gaintitu, papera jartzea ahaztu... (normala honako hiri burokratiko batetan) Hor dator, nondik ere ez dakigula, horiz jantzitako *har txapelduna*... eta ezer galdetu gabe, gure NAN zenbakia aparatu informatizatu arraro horretan sartu orduko, gure bizitza deliktiboaren aztarna guztiak azal-



tzen zaizkio... noiz eta non jaio ginen, jantziaren kolorea, zenbat isun jasan ditugun...

Baina kontuz, laster eta sinetsi hau, zeuoi ere, oinezkooi, gorputz atalen batetan *mikro txip* bana jarriko dizue edo kale ertz bakoitzean bideo kamerak jarriko eta goizeko lehen aharrausitik gaueko izkutuko ihesaldirainoko guztiak grabatuak izango dituzte. Horrela ez harritu goizaldeko ordu txikietan, edozein uniforme mota edo gabekoen bisitaren bat jasan beharra izateaz... eta litekeena atxilotze aginduekin baliatuta... Eta gero Gasteiz Europako herririk lasaienetarikoa dela esango dute... Eskerrak! Beno gaurkoz gehiagorik ez. Eskerrik asko! Auto gizarajoak bazuen, bai, arrazoirik.

Abel Enbeita

EUSKARA BA(N)TUA

EUSKARA MERKE-MERKE



URTARRILA igaro da dagoeneko. Hilabeteen zehar, kalera atera orduko, beherapenak non-nahi.

Han hemen ibili gara denok maukatxoren bat topatu nahian. Saltzaileak, bestalde, edozer egiteko prest, edozer euren

produktoak saltzeko. Batzuen ustez, halere, euskara ez da errentablea. Horrek ez du dirurik ematen. Zertarako, bada, euskarazko iragarkirik jarri. Euskaldunok ados jarri eta boikota egingo bagenie, agian, bitan pentsatuko dute datorren urtean euren txartelak erdara hutsez jarri aurretik.



eguneko menua



BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ



HegoAmerikako jantziarik ederrenak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren kantoia
kantoia ertzean Tfnoa: 25 03 52

Arriaga, HIESdunak gizarteratzea denon esku



Arabako instituzioek erabaki berri dute Arriaga auzoan etxe bat egitea HIESak jotako gaixoak sendatzeko. Bertako auzokideen artean aldeko eta kontrako jarrerak daude. Guk Ipar Arriaga Auzo elkarteko Leopoldorekin eta Carlosekin hitzegin dugu. Hurrengo lerroetan doakizue solasaldi horretan jasotakoetarik emankorrena.

HIESAREN MUNDUA zaila eta konplexu xamarra dugu. Gaixotasun mardikatu horrek berez dakarren beldurra dela bide, bere inguruan oso jarrera desberdinak sortarazi dira. Hori kontuan izanda, Gasteizko Udalak eta Foru Aldundiak erabaki dute HIESak jotako gaixoak sendatzeko egoitza bat egitea Arriaga auzoan. Eraikin horretan gaixoak gizarteratzeko eta gizarateak horiei buruz duen iritzia aldatzeko bideak eskeiniko dira. Izan ere, HIESak jotakoak eritizat baino delinkuentetzat jotzen dira sarritan.

Ipar Arriaga auzo elkartearen batzordea ados dago etxearen helburua eta kokapenarekin. Halere bere ikuspegia oso bestelakoa da bertako auzokideenaren aldean. Honela esan digu Ipar Arriaga auzo elkartearen zuzendariak: "Gure batzordeak zeharkako harremana du hemengo auzokideekin eta horren ondorioz, auzokide guztiek ez dute batzordean esaten denarekin bat etorri behar".

Auzokideen batasuna beharrezkoa

Lehen adierazi bezala, auzokideen artean ez dago adostasunik HIESdunak hartzeko egoitzaren inguruan. Auzo elkartearen eginkizuna oso mugatuta dago, informazioa eman behar dute soilik. "Auzokideak gaiaren jakinaren gainean

“Ipar Arriaga auzo elkarteak auzokideen arteko batasuna nahi du”

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

EGUZKILORE

Kutxileria, 44
Tel. 28 68 40
GASTEIZ

Kriston
beherapenak



Carlos

**“lan egin behar
dugu gaixo hauek
gizartearen
partaide senti
daitezen”**

jartzeko zenbait bilera egin ditugu politikariek baina alperrik, jendearen oihuek, garrasiek eta muzinek bertan behera uzten baitzuten dena”.

Auzo elkartearen ustez, jendeak ez du HIES ezagutzen eta, gainera, horretarako asmorik ere ez du. Arazo honi aurre egiteko auzokideen arteko batasuna beharrezko da auzokideen elkartearen ustez; errealitatea, aldiz, kontrako norabidean doala dirudi.

Lekurik egokiena ez

Arriaga auzoan bizi den berrogei urteko gizona dugu Leopoldo. Bi umeren aita da eta, berak esan digunez, ez du ezer HIESak kutsatutako gaixoen kontra. Bestalde, ez du begi onez ikusten egoitzaren kokapena. “Gaixoeak bilduta egon behar dute leku egoki batetan eta gure auzoa ez da horretarako egokiena”. Bere ustez, apaiztegi zaharra leku aproposagoa da gaixoentzat, apur bat isolatuta eta baztertuta dagoelako”. Arazoaren kakoa, bere aburuz, 15-18 urtetako gazteengan datza, “eurek ez baitute zertan egunero gaixoen alboan egon behar”. Leopoldoren ustetan, gaixo horiek oraindik drogazaleak dira eta kaltea sor dezakete. “Behin ijitoen eskola bat ezarri nahi izan ziguten, orain drogazaleak, hurrengoan zer?”, ebaki du haserre. “Guk ez dugu Gasteizko auzo guztien drogazaleasunaren ondoriak bizkar gainean hartu behar”.

Leopoldori oraindik ez dio inork eman egoitza beraian auzoan jartzearen arrazoiak. “Politikariei merkeago ateratzen ote



zaie?”, galdetu du berekiko. “Inork ez die administraziokoei etxe hori hemen eraikitze eskubidea eman, horretarako auzokideen arteko kontsentsua egin beharko litzateke”.

Integrazioa helburu

Carlosek 28 urte ditu eta HIESak jotako gaisoak hartzeko eraikinaren alboan bizi da bere emaztea eta bi alaba txikiarekin.

Egitasmoaren berri izan bezain laster egoitzaren ezaugarriak, helburuak eta abarrak ezagutzeari ekin zion. “Hasieran ez nengoen etxea egitearen alde, ez nekielako etxearen helburua zein izan behar zen, baina informazioa jaso eta gero iritzia aldatu dut”.

Hipotesi edo psikosiek jota bizitzaren aldeko ez dugu Carlos, ez ditu maite, beraz, honelako esaldi asaldagarriak: “Eta ziztatzen bagaituzte edota arazoren bat sortarazten badute... eta etxetik ateratzen naizenean kotxe batek harrapatzen banau!”, esan digu ironiaz.

Carlos proiektuaren alde dago, beti ere Gasteizko HIESaren komiteak emandako baldintzak errespetatzen badira.

Carlosek uste du gaixo hauen bergizaraketaren aldeko borroka egin behar dela. Dena dela, auzokideek jakinaren gainean egon behar dute. Horretarako, informazio kanpainak ezinbestekoak dira, bere ustez. “Auzokideak gaixoeak onar ditzaten konbentzitu behar ditugu eta denon artean lan egin gaixo horiek gizartearen partaide senti daitezen”.

Susana Calleja

Leopoldo
**“gaixoeak leku
egoki batean
egon behar dute
ez gure auzoan”**



**IRUSTA
TABERNA**
HAMARRETAOKAK

KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ

IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

Larrugorritan euskararen alde

Pasa den hilabetean euskararen egoera salatzeke, Euskal Herrian Euskarazeko hiru kide Foru Aldundira azaldu ziren soinean inolako arroparik ez zeramatzela. Ekintza ikusgarria izan bazen ere, guk oraindik haruntzago joan izan nahi dugu eta Euskal Herrian Euskarazeko partaidea den Alfontso Sanzengana hurbildu gara euskararen egoeraz hitzegiteko eta salaketa horren azpian dauden benetako arrazoiak jakin ahal izateko.



EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ


orain dela hamabost urte inguru sortu zen. Beraien helburua euskararen normalizazioa lortzea da, eta horretarako hainbat arlotan indarra egiten saiatzen dira, azkenean Euskal Herrian guztiok euskaraz egiteko eta bizitzeko aukera izan dezagun.

Administrazioan, irakaskuntzan, komunikabide arloan eta horrelako adarretan eragina izaten saiatzen dira batez ere. Alfontso esan digunez, "administrazio publikoan dagoen legedia ez da betetzen. Hortaz, euskaldunok gure herrian diskriminatuta gaude, edozein lekutan beti

“ Biluzik agertu ginen Aldundiaren euskararen erabilpen txikia salatzeke ”

erderaz hitzegiteko beharra izaten baitugu. Horren aurrean E.H.E. etik saiatzen gara egoera hori salatzen, gure hizkuntz eskubideak errespetatuak izan daitezen”.

Zerbitzu publikotan euskararen erabilpena bultzatzeko ahaleginetan ari dira, baina jendearengan motibazioa sortearaztea ere oso garrantzitsua ikusten dute.



“E.H.E. sortu zenetik euskararen egoera hobetu da. Dena dela, oraindik oso txarra da, orokorrean esanda. Desoreka haundia dago jendeak nahi duena eta erakun-deetatik datorrenaren artean. Egoerak zeozertan hobera jo badu, jendea esker izan da, ez besterik”.

GARNICA



Gorbea kalea 40
Tfnoa: 24 18 73

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

**Jendeak ulertu
du euskaldunok
gero eta eskubide
gutxiago dugula**

Euskaldunon eskubideak murriztuz

Alfonsok adierazi digunez, Arabako Foru Aldundian euskararen erabilera oso txikia da, eta gainera azkenengo aurrekontuetan euskarari zuzendu behar zaion diru kopurua murriztea erabaki dute. "Hau lotsagarria iruditzen zaigu, Araban gero eta euskaldun gehiago dagoela begi bistakoa delako. Gainera, jendea gero eta gehiago mugitzen da euskararen alde. Horren aurrean, erakundeek erreztasunak eman beharrean, trabak baino ez dituzte jartzen".

Beraz, Alfonsoren arabera, euskarak benetako zailtasunak ditu aurrera egiteko, eta jendearen partetik euskara gero eta gehiago erabiltzen bada ere, instituzioen aldetik ez da laguntza haundirik jasotzen. Hori guztia salatu nahi izan zuten Foru Aldundian E.H.E ko hiru kide biluzik agertu zirenean. "Gehien bat salatu nahi izan dugu Foru Aldundian egiten den euskararen erabilpen txikia. Arabako Foru Aldundiak ez du ia euskararen aldeko kanpainarik egin, ez du inoiz bultzatu euskararen erabilera kalean. Gainera gure hizkuntzaren egoera aldatu bada ere, eta azkenengo inkesten arabera, gero eta gehiago erabiltzen bada, euskaldunon eskubideak murriztu baino ez dizkigute egiten".

Hauteskundeak pasa ondoren, zer?

Hauteskundeak gainean ditugula egoera alda daiteke. Dena dela, Alfonsok esan digunez, euskararen egoera oso txarra da oraindik. Gainera, esan beharra dago hauteskundeetan garaile



ateratzen den alderdiaren baitan dagoela dirulaguntzak nola banatu behar diren erabakitzea.

"Kontzientzia mailan aldaketak sor daitezke. Araban badago alderdi bat euskara eta euskal kulturaren aurka gogor egiten duena. Beraiek erabiltzen duten mezua nahiko demagogikoa da, eta mezu horren bidez euskarari erasoak baino ez dizkiote egiten. Araba erabiltzen ari dira euskararen kontra joateko, esanez, arabatarrok ez dugula euskara berreskuratzeko nahia. Hori errotik gezurtatu behar dugu, hemen badagoe-lako euskararen aldeko benetako borondatea".

Dena dela, elkarrizketan azaldu digutenez, E.H.E.ek hilabete honetan nazio batzarra egingo du, eta bertan zehaztuko dira datozen urte hauetarako interes-guneak eta kanpainak zeintzuk izango diren. Araba mailan oso argi daukate euskarak jasotzen dituen erasoaren aurrean egin beharrekoa, hau da, erantzun zuzena ematea izango dela beraien eginbeharrik garrantzitsuena.

Trabak gaintitu beharra

Foru Aldundian egindako ekintzaren ondoren kalean jendeak zer esaten zuen galdetu diogunean, komentarioak nahiko positiboak izan direla adierazi du Alfonsok. "Nik uste dut jendeak ulertu egin duela euskaldunok gero eta eskubide gutxiago ditugula salatu nahi izan dugula ekintza horrekin. Gainera, arabarrek eta kanpokoek ulertu egin dute Araban euskarak jasaten duen egoera oso larria dela. Bestalde, baten batzuek ekintza bera baino zuten ikusiko, eta ekintza hori egiteko bultzatu gintuzten arrazoiez ez dute inolako hausnarketarik egin, baina hori izan daiteke, beharbada, arrazoi horiek ez dituztelako ikusi nahi".

Elkarrizketari amaiera jartzeko puntuan gaudela, hau esan digute bere hitzei itxaropen printzak darizkiela: "Azken urte hauetan euskarak aurrera egin badu ere, oraindik bide luzea geratzen da aurretik, eta euskararen normalizaziorako dauden zailtasun guztiei aurre egiteko euskaldun guztion indarra beharrezkoa da".

Itziar Martinez de Santos



GUREA
jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33



ARTEPAN

Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

Jolanda Leon

Zabiltza kontuz! Gasteiztarra zarela badakigu. Eta euskaraz mintzatzen ikusi zaitugu ere. Hobe zenuke, beraz, oporrak hartu eta nonbait izkutatu, txoko honetan agertzen den hurrengoa izan nahi ez baduzu.

DUELA 28 URTE Gasteizen sortua, Adurtzan. Bertan jaio eta bertan bizi. "Betidanik leku berean, Naipe plazan, justu Fournier atzean". Auzune berezia, inola ere, Gasteizen. "Adurtzan betidanik izan dira dantza taldeak, euskara taldeak eta".

UBI behar bezala gainditu ez eta ekin zion euskarari. Eta adiskideen solasa ezin ulertu zuelako ere bai. "Amorrua ematen zidan ez ulertzea". Gero baino gero gehiago gustatu zitzaion eta Euskal Filologia estudiantzera jo zuen. 3. mailako gai zitala geratzen zitzaion lizenziatzeko elkar hizketa egin genuenean, baina dagoeneko gainditua du. Zorionean. Dendarabako Gretel-en ari da, goxokitan. Hantxe jardun du lanean ikasten zuen bitartean. Gerora, dena den, eskolak eman nahiko lituzke. Amarenean bizi da, ama eta hiru urte gazteago den ahizparekin, Martarekin. Gustora hartuko luke erabateko independentzia; hala esango nuke.

Ez du euskaraz mintzatzeko aukera handirik. Dituen adiskideak ere erdaraz eginak ditu, eta harrezkero euskaraz ikasita ere, gaitz dute hizkuntzaz aldatzea. Alabaina, aukera apurrak baliatzen ditu. "Dendan ere euskaraz egiten dut ahal dudan bakoitzean".

Jolandaren afizioak. "Ez dut astirik afiziorik izateko". Dena dela, bizikletaz ibiltzea gustatzen zaio, baita mendira irtetea ere edo lagunetara joatea, txikiteoan eta. "Gustorago nago kafea hartzen eta hitzegiten, txikiteoan baino". Bentaja handiagoak ditu txikiteoak, hala ere.

"Txikiteoan jende gehiago ibiltzen da; ezagutzen duzu eta elkartzen zara".

Hainbatetan eta hainbatetan erantzun dit "ez dakit". Itxura dagoenez, elkar hizketak ez du sasoirik onenean harrapatu Jolanda Leon Lasarte, gozategian lan egiten duen filologo berriak.



DUZUN BIZIORIK HANDIENA?
Erretzearena, esango nuke.

ZER ESKATZEN DU HERRIAK?
Bere bizitza bakean bizitzea, lasai.

ZER ESKATZEN DIOZU BIZITZARI?
Nire burua aurkitzea. Eta helburua ere bai. Gustatuko litzaidake nire

etorkizuna ikustea. Oraingoz -eta 28 urte ditu-, ez dut nire burua ondo ikusten. Iruditzen zait nire bizimodua dela, duela hamar urte bezalakoa. Ez dela nire bizimoduan ezer aldatu. Nire independentzia behar dut.



giro atsegina eta lasaia

espezialitatea: etxeko pintxoak

1993ko txapelduna • 1994ko azpitxapelduna

ERRIOXAKO ARDORIK HOBERENAK EZAGUTZEKO AUKERA

ARKA 2 / DATO 27 • GASTEIZ

JANTZI ETA OPARIAK

Kutxilleria, 40
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



**GASTEIZ, VITORIA, GASTEIZ-VITORIA
ALA VITORIA-GASTEIZ?**

Betidanik entzun dut Vitoria-Gasteiz...
Ohituta nago Vitoria-Gasteiz entzuten.

JENIORIK BAI?

Bai, baina asko kostatzen zait ateratzea.
Nahiko apala naiz.

**ZEIN DUZU MOMENTUKO KEZKARIK
HANDIENA?**

Karrera bukatzea!

GEU ELKARTEAREN BERRIRIK BAI?

Bai, oso ondo dago.

EGUNKARI BAT?

Hasi nintzen "Egunkaria" erosten baina
gure etxean betidanik "El Correo"
irakurtzen da eta horixe irakurtzen dugu. A
ze lotsa!

TELEBISTA PROGRAMARIK?

Ez dut askorik ikusten. Bakarrik
nagoenean Euskal Telebista ikustea
gustatzen zait. Baina gure etxean inork ez
daki euskaraz; hortaz, ezin dut euskarazko
katea jarri. Telebista ikusten dut
bazkalorduan eta batzuetan gauetan.
Dokumentalak gustatzen zaizkit. Gehiena
ikusten dudana "Telediario"-ak.

OPORRAK NON ETA ZERTARAKO?

Egia esaten badizut, ez dut izan oporrik -
opor normalak-, duela bost urte edo. Izan
ditudanean, oso denbora laburrean izan
dira, astebete edo. Lagunekin pasatu ditut,
batzuetan Benidormen -nire lagun batek
han pisua duelako eta normalean hara
joaten direlako-, besteetan Asturiasen...
Bakarrik astebete.

ETXEKO LANAK NOREN KONTURA?

Ama dagoenean, amak. Baina ama ez
dagoenean, ahizpak eta biok. Ez dugu dena
ezer egin gabe utziko!

ZERK ATERATZEN ZAITU ZURE ONETIK?

Gauza asko. Jendeak gezurra esatea
adibidez; gezur tontoak. Motibo batekin
edo egoeraren bat konpontzeko esaten
badute gezurra... Baina esate aldera esaten
diren gezur tontoak... ez dut ulertzen.

JAKI GOXOREN BAT.

Goxokiak gustatzen zaizkit. Pastelak eta,
ttikiak, Sosoagakoak adibidez. Pastel
handiak ere bai: croissantak eta...

FILMERIK?

Asko daude. Bada, "Como agua para
chocolate".

AKTORE IZENIK?

Meryl Streep. Gustatzen zait nola lan
egiten duen.

GORPUTZ ATALIK POLITENA?

Begiak, esaten dute. Zerebroa! (Barrez).

AMETSIK?

Nire gustoko lanpostua izatea. Klaseak
eman nahi ditut, baina ez dakit gustora
egongo naizen eskolak ematen. Gustatuko
litzaidake nire burua ikustea bi edo hiru
urte barru, eta ondo.

**GIZARTE ARLOAN, ZER ALDATUKO
ZENUKE?**

Hainbeste gauza. Hasi? Goitik hasiko
nintzateke, agintarietatik.

**DENBORA ETA DENBORA IZANEZ GERO,
ZER EDO NORA?**

Bidaiak egitea gustatuko litzaidake,
edonora joatea; mundua ikustea. Ez naiz
hemendik mugitu. Gustatuko litzaidake
beste gizarteak ezagutzea, jendea
ezagutzea.

LIBURUREN BAT? IDAZLEREN BAT?

Oso gutxi irakurtzen dut, gutxiegi.
Irakurtzen dudanean fakultateko liburuak
irakurtzen ditut.

**ZEIN DA ZURE BARRUKO MOTORRA? ZER
DUZU EGUNEROKO ERAGINGARRI?**

Gosaria! Egia da! Gosaldu behar dut
esnatzen naizen bezain laster... Bestela,
bizitza bera. Eguraldiak ere asko laguntzen
nau. Udan neguan baino hobeto esnatzen
naiz.

ZEIN DA ZURE MAITASUN EGOERA?

Oraintxe, txarra.

ERLIJIO SINESMENIK?

Ez. Pentsatzen dut Jaungoikoaren antzeko
gauzaren bat egongo dela hortik baina...
Uste dut ezin dela azaldu kristauak esaten
duten moduan...

Miel Anjel Elustondo

BESTE PREZIOEKKIN EZER IKUSTEKKORIK EZ



450 saltegi baino gehiago dituen Estatuko lehen erakunde
optikoak bakarrik eskain diezazkizuke betaurreko
bildumarik esklusiboenak 2.850 pezetatik aurrera.
Eta garantia guztiekin, jakina.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS
ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba.

Andre Maria Plaza Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ



AMA SAY: "Say Ama"

AMA SAY talde bizkaitarraren bigarren diskak ezin zuen gehiago itxaron. Bero-bero zegoen, lehertzeko zorian. Agian, horregatik kaleratu zen azaroaren lehendabiziko egunetan, Durangoko azokaren zain egon gabe. Estraineko diska agertu zenetik hona Ama Say-koak ez dira egonean ibili. Oraingo garaia ez dugu ezer hutsaren truke emanzalea eta "Say Ama" izena hartu duen grabaketa honek lan ordu luzeak eskatu ditu, dudarik gabe. Mugitu, ikertu dute, taldea sendotu da, musika

asko entzun dute, eta hori, jakina, begi bistakoa da bigarren grabazio honetan Bestalde, lehengo ezaugarri batzuei eusten diete, beraien taldea berezi egin dutenei hain zuzen ere: horra hor, ingele-ra-euskaratako esaldien nahasketa, kitarra indartsuak, iluntasuna... Dena den, Ama Say ez dugu talde erraza, ez eta oraintsu aurkeztu diguten "Say Ama" izeneko lana ere. Seguru gaude ez dutela askorik salduko: Euskal Herria txikia da, eta gainera hemen ez ditugu belarriak ohiturik Ama Say-renak bezalako doinuak entzuten. Hori ez ezik, ez dira inola ere eredu komertzialetara hurbiltzen bizkaitar hauen musika-lanak. Baina horiek kalitatezkoak ote ditugu beti? Askotan ez, horregatik behartuta gaude irratiek eskaintzen diguten musikatik kanpo erritmo interesgarriak bilatzen eta Ama Sayk badaki non dagoen bere lekua. Rock'n Rollaren jatorrizko zentzua edeki beraigeanaturik dute musikari hauek eta horretaz gain oso era pertsonalaz sinatzen dituzte abestiak.

"Papillons noirs", "Beldurrik ez", "Mila kolore", "Ametsekin ametsetan" abestiak

entzuten ditugunean kalitatea agerian geratzen da aparteko taldeek eragin ohi duten dartadarekin batera.


Ez dute ezer berririk asmatu. Izan ere, rock taldeen betiko musika-tresnak darabilzkite, oso era bitxian, ordea: abotsak instrumentu guztien soinua ixilaraziz, askotan elkarrekin nahasten badira ere; kitarra zorrotzak gehienbat, batzutan melodikoak, beti aurrean, beti protagonista; baxu eta bateria sendoak, zirrikiturik gabeko erritmoa sortuz.

Baldintza horietan sortutako emaitza ezin da txarra izan, batez ere kolaboratzaileen zerrenda luzea kontuan izanda: Nagore, Beti Mugan-eko abotsa hiru abestitan; Lino eta Mikel, Parabellum eta Anestesia taldeetako baxuak, hurrenez hurren; Jon Usher eta Iñaki, Bala Galduak-eko kitararak; eta, azkenik, Angel Valdesen perkusioa.

Gabonak atzean utzita ere, edozeini egiteko oparirik? Bai, CDan aurkitu ahal izango duzun hamalau minutuko abesti instrumentala. GEHIAGO? MORE!!!!

Txabi Arnal Gil

XXI. MENDEAN EUSKALDUN



Zure esku dago !

- 2, 3 eta 5 ordutako ikastaroak
- Urrats guztiak, EGA, MIntza eta Sakontze
- IKAS-TXIP (euskara ordenagailuz)
- Negu Barnetegia Lesakan

GASTEIZ-ADUR: Errege Katolikoak 15 (28 89 22) PINTO: Pintoreria 74 (28 79 80)
ZALDIARAN: Zaldiaran Plaza 16 (24 49 05)

MATRIKULAZIOA: urtarriak 23 • otsailak 10



Parrandarako aitzakia galanta



Parrandarako aitzakia galanta izateaz gain gure herriaren kulturaren adierazle ezinhobea ditugu ihauteriak. Mundu zabalean hamaika herriek ospatzen dute batera neguko jai nagusia baina herri bakoitzak era berezi batean ospatzen ditu ihauteriak. Urteen poderioz fama handia lortu duten ihauteri jaiak dauzkagu gure inguruan: Tolosa, Ituren, Lanz, Lapurdi osoko hainbat herri... baina Araban ere ohitura zaharrak izan baditugu ospakizun honen inguruan.

EHUNDAKA HERRITAN ospatuko dituzte hilabete honetan ihauteriak. Egun herri guztietako kulturak puntu amankumunak dituen arren bakoitzak era berezi batean ospatzen ditu neguko jai hauek. Dena den, argi dago industrializazioaren hatzaparretik kanpo geratzen diren nekazal gunek direla aintzinetako ohiturak hobeto gorde dituzten esparruak.

Ihauteriak kutsu kristau sakona duen arren ezin da bere jatorri gentila ahaztu. Gure arbasoek jangoikoak pozik mantentzeko ospatzen zituzten neguko jai hauek; garai honetan mendira joan behar





zuten artaldeare-kin eta otsoa eta ekaitzei aurre egin baino lehen bidea prestatzen zuten non-bait.

Aditu batzu-ren ustez hori da egun batzuren buruan gozatu-tuko ditugun jai hauetan egoten den za-

rataren jatorria. Euskal Herrian garai batean bizi izan ziren gentilen sinismenaren arabera zarata da gaitzak eta arriskuak aldentzeko modurik eraginkorrena.

“**Gazte koadrilak izan dira beti Gasteizko ihaute-rietako ezaugarri**”



Gasteizko jaiak

Gazte koadrilak eta hauek egiten dituzten zarata izan dira beti Gasteizko ihaute-rietako ezaugarri nagusiena. Oraindik ere egiten dira gure hiriburuan garai batean bertako ihaute-riei fama ona eman zien festa eta kantaldiak. Jaiaren izen onaren adierazlea da 20. hamarkadan asmatutako abesti ezaguna: “Pita, pita, maquinista/ pita, pita sin cesar/ que la máquina del tren se va a parar/ y nos vamos a Vitoria a pasar el Carnaval”.

Arabako nekazal guneetako ihaute-rietako ezaugarri nagusienak herri guztiaren parte hartzea eta aintzineko ezaugarriak mantentzea dira. Herriko lagun guztien parte hartzea mutil gazteek egiten zuten errondetan ikusten da. Agate Deun bezperan bezala gazte taldeak etxez etxe joaten ziren hurrengo eguneko bazkarirako janari bila. Jaki goxoak lortzeko asmoz abesti bat kantatzen zioten etxe-koandreari. Maskaradako antzezle guztiek ere parte hartzen dute bazkarian.

Izan ere, maskaradak ez dira Lapurdi edota Nafarroako herrietan bakarrik egiten; Araban ere maskaradak egiten dira eta herri batzuetan Euskal Herriko ekitaldi berezi hauetako berpizkundea bultzatzen ari dira, Zalduondo edo Salcedo kasu.

Markitos dugu Zalduondoko ihaute-rietako protagonista nagusiena. Pertsonaia ezagun eta xelebre hau gaitz guztiak herritik ateratzeko erabiltzen dute Zalduondotarrek.

Garizuma prestatzen

Izan ere, eta bere jatorri gentila aipatu dugun arren ez da ahaztu behar ihaute-riak garizuma dela egun. Batzuren ustez paganismoaren azken aztarna dira ihaute-riak. Gure artean mendeetan zehar

Helburua, jaia zabaltzea

11 MILOI ETA ERDIKO gastua aurreikusi du udalak aurtengo ihaute-ritako egitaraua osatzeko. Helburuak konparsen desfilean parte hartze handiagoa lortzea, jaia hiriko auzo guztietara zabaltzea eta sardinaren erreketak jende gehiago biltzea dira.

Urtero lez pregoiak emango dio hasiera jaiari; aurten Ana Lucia Billatek egingo du pregoiak eta, iaz bezala, Principal Antzokian egingo da ihaute-rietako lehen ekitaldia.

Udaleko iturrien arabera aurtengo jai-etako helburu nagusiena parte hartzea zabaltzea da eta aldeaz aurretik behintzat, lortuko dutela dirudi. Konparsei dagokionez, 94ean baino hiru gehiago ikusi ahal izango ditugu eta 4.500 lagunek inguru parte hartuko dute desfileetan. Kalera irtengo diren 25 taldeetatik 22k karroza bat prestatzen ari dira desfilean erakusteko eta 7k fanfarre baten laguntza izango dute. □

zure euskal LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia

EDAN • JANTEGIA

Oleaga

ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

*Karta betiko eta oraingo platerekin
Eguneroko Menua: 1000 pzt
Betiko kazuelatxoak*

“**Araban ere
Maskaradak egin izan
dira ihauterietan**”

nagusi izan den eliza katolikoak ondo jakin zuen gizartean erroturik zeuden erritoak bere alde jartzen.

Ihauteriak gizarte ordenua mantentzeko erabili izan dela esaten dute batzuek. Garizuma isiltasun eta iluntasun garaia izan da urte askotan zehar gure gizartean eta horri aurre egiteko parranda garai “ofiziala” antolatu zuen elizak. Horrela, ordenu soziala mantendu egiten da, hiru egun jai eta berrogei etxetik irten gabe.

Horregatik, ondo baino hobeto aprobetxatzen zuten gure aurreko belaunaldi-koek ihauterietako egunak. Berrogei egunetako epe ixil eta iluna aurrean ez izan arren guk ere ondo pasatu dezakegu egun hauetan; batez ere ostean azterketak edota oporrik gabeko garai gogorra datorrela jakinda.

Leire Lopez de Aberasturi

ihauteriak

egunez egun



OTSAILAK 24 OSTIRALA

20:30etan

Printzipal Antzokian:

Ihauterietako pregoia, Ana Luzia
Billateren esku
Fantasiatzko mozorro lehiaketa
Sarien banaketa
Konpartsen aurkezpena

OTSAILAK 25 LARUNBATA

11:00etan

Kotxe klasiko eta motor zaharren
konzentrazioa Enparantza Berrian

17:00etan

Karroza eta konpartsen konzentrazioa
Gasteiz hiribidean

19:00etan

Ihauterietako desfilea

19:30etan

Ihauterietako kalejira hiriko
oinezkoentzako esparruan zehar

23:00etan

Gaueko dantzaldia Arkako Plazan

OTSAILAK 26 IGANDEA

11:30etan

Karroza eta konpartsen konzentrazioa
Valladolid kalean

12:00etan

Ihauterietako desfilea

14:30etan

95. urteko ihauterietako sariak banatu

19:30etan

Dantzaldia Enparantza Berrian

OTSAILAK 28 ASTEARTEA

19:30etan

Dantzaldia Enparantza Berrian

20:30etan

Sardina erre

20:45etan

Kaleko antzerkia Teatre de L'ull
taldearen eskutik

DESFILEAK

LARUNBATA 25

Gasteiz hiribidea•

Antso Jakituna•Lobaina plaza•

Magdalena•Prado•

Andra Mari Zuria•MateoMoraza•

Olagibel•Pakea•Desanparatuen plaza

IGANDEA 26

Valladolid•Nafarroako Erregeak•

KarlosI.aren plaza•Legutioko ataria•

Frantzia•Independentzia•

Alava Jenerala•Dato•

Enparantza Berria



HEGOALDE
euskaltegia.

**florida kalea 58,
behea
tfnoa 28 41 96
01005 GASTEIZ**

Bertsolariak Gasteizko plazara...


hamaika kontu eta zertzelada

Kaixo lagunak:

Zuetako askok Printzipal Antzokian burututako bertso saioaz gozatzeak aukera izan zenuten. Baina ezin imajinatu dezakezuten zera da: saio antolatzeak jasan behar izan genituen bilera, telefono dei, ezusteko...

Horregatik, gure diarioa zabaldu eta guzti hauek zuenganatzea erabaki dugu.

muxu bat:



Bertsolariak plazaratu arteko abentura eta desbenturak

Urrian Printzipal Antzokia eskatu genuen. Baietz erantzun ziguten. Azaroaren lehenengo astean bertsolariei deitu genien, badaezpada ere. Badakizue, "izarrak" denboraz harrapatu behar dira, bestela... eskuraezinak izaten dira.

Ordutik aurrera, hamaika bitxikeria eta pasadizu tartean. Horietako batzu kontutuko ditugu jarraian.

Bitxienak, agian, komunikabideekiko harremanetan. Irratirako erdaraz hitz egin behar eta bertsolaritzari buruzko azalpen guztiak hiru minututan ematea eskatu

ziguten. Bertsolaritzaz erdaraz, eta bapatean! "Un bertso se compone de la melodia, la rima y la "neurria"! Nola esaten de erdaraz?... Zaila da gaztelera, gero?

Egunkari batekoei esan genien: "Orain daukazue aukera polita, bertso saioari buruzko informazioa euskaraz emateko!" Erantzuna: "Ya, pero ya sabes, aquí, en Alava..." Komentariarik gabe.-

Okerrena saioa baino hamabi egun lehenago. Joxerra Gartziak goizean goiz, deitu zigun esanez sentitzen zuela, baina ezinezkoa izango zitzaioela saioa aurkeztu. Bere errua ez da. Gaizki ulertze bat egon zen gutako baten eta bere artean. Egun

hartan, hamaika telefono dei egin behar izan genuen ordezkoa aurkitzeko. Batak ezin zuela, hurrengoak ere ez. Lurrak irents gaitzala! Azkenik, gaueko 10etan, Guardako Aingerua agertu zitzaigun.

Sarrerak martxa onean saltzen ari ziren. Azkenengo egunetan ez zuten batzuek buelta gutxi eman ahal lekuri onena harrapatu nahian. Herrikoiatik Axularrera eta hortik Bagarera edo alderantziz. Salmenta puntuetako langileei mila esker, izugarrizko lana aurreratu zeniguten eta.

Eta azkenik egun handia iritsi zen

Azkenik egun handia iritsi zen, eta atzean geratzen ziren lehen aipatutako eta

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK



Ederki

argazki estudioa
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudioko argazkiak
Bideo industrial
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

aipatu gabeko hainbat lan, neke eta izerdi. Gustora egindakoak, halere.

Antzokira iritsi ginenerakogoizeko 10ak ziren. Komeriak han hasi ziren Printzipaleko teknikariak eskenatokia prestatzen. Gerra pixka bat eman zuen eskenatokirako prestatutako irudi ederrak.

Tanttaka hasieran eta trumilka gero hasi zen jendea etortzen sarrerak erostera. Inkesta orriak banatu behar zituzten mutilak, puntu-puntuan. Rikardo bertsolaria ARGIAko egutegiak saltzera. GEU elkarkideak aldizkariz eta materialez betetako mahaia atontzera.

Bitartean Antzokian kristoren ilara. Ez genuen ba, propaganda gutxi egin jendeak sarrerak aldeztetik erosteko... eta gero hau! Hurbildu eta askori sumatu genien, edota bezpera arte oporretan ibiliak zirela edo ez zirela bertokoak. Lan bikaina egin zuen takilako neskak, baina ezin azkar joan. Hurrengoko saioan bera bezalako bi jarriko ditugu.

Bertsolariak Plazara

Kontserjeak galdetu zigun lehenago ea zenbat kamerino behar genituen. "Bi utziko dizkizuet". Alferrik. Bertsolariak zuzenean atera ziren eskenatokira, norberaren txamarra bere aulkian utziz.

Eta saioa hasi zen. Iluntasuna nagusi. Baina laster argitasun ederra emango ziguten bertsolarien ateraldiek.

Abentura eta desbenturen inguruko artikulua honetan ez gara hasiko bertso saioaren kronika zehatza egiten. Zer nolako inpresioa eman ziguten bertsolari eta aurkezleak, eta beste kontutxoren bat aipatuko dizkizuegu.

"Zortzi urte hemen pasa eta sekula ez naiz izandu Arabako Txapelduna". Egañak ondo hurbildu zien Gasteiz beste bertsolariei, nahiz eta gauzatxoren batetan huts egin zuen; izan ere, Elorriagako argi gorriko etxea aspaldian itxirik dago.



Euskaldun bat lapurtu zigun Murua ondo aritu zen. Bera goietarritarra izanda, bere herrira euskara ikastera joan zen neska gasteiztar batekin ezkondua dago.

Ez ziren egoera onean etorri Iturriaga eta Elortza. Igorrek horrela aitortu zigun. "Zuen lekuan egonda lotan egongo ginateke". Hala ere Unai azkar eta zorrotz

ibili zen bertsoen barruan hainbat erreferentzia eginez. Adibidez, ederki aipatu zizkion Lizaso apaiz zaharrari Setienen azken homiliak.

Lizasok bere maila eman zuen. GEU elkarteak eskenatokian jarritako irudia hporrenbeste goraipatu zuenez, bere irudia jarri beharko dugu hurrengoan.

Sarasual ahalegin berezia egin zuen bertso saioan zehar. Zerbait aipatzekotan bereziki, Arabari buruz moladatu zituen bertso hunkigarriak.

Gai onak prestatu zituen Zeberio. Hankasartze bitxia eduki zuen ere. Bertsolarien irudiari buruzko gaian bertsolariak "estatikoak" (sic) ez zirela bota zuen.

Saioaren ondorena

Andoni, Sebastian eta Jon ziztu bizian Oiartzuna abiatu ziren. Seiretan ARGIAk antolatutako bertso saioa zuten bertan. Ikaragarria benetan gure izarren martxa!

Pozik atera ginen Antzokitik. Komunikabideetara bidalitako esku-titz batean esaten genuen bezala "inoiz bildu al gara Gasteizen horrenbeste euskaldun holako areto batetan?... Ez da lan makala aurrean daukaguna, baina Arabako eta Gasteizko euskaldunon bizinahia eta elkartzea areagotzen dugun neurrian, hutsalak bihurtuko dira batzuren adierazpen mingarriak. Aurrera egin dezagun elkartasunean".

Urte berri honetan, lanerako eta gozamenerako prest gaude. Eta datorren urtean hasteko ere, gozatu dugun bezalako beste bertso saio bat behintzat, gure zain.

Xabier Rico

★
IZ
TABERNA
RA
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ**

**Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu**

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

Zaramaga: Borrokarako indar

AUZO HONEN hasiera mende honen hirurogeita hamargarreneko hamarkadan kokatzen da. Itxaropen ugari eta langileen eskubideen aldeko borroka indartsuen garaiak ziren ordukoak.. Urteak igaro ahala, zenbait arazok auzo hau gogorki erasotu dute: langabeziak, drogak...eta elkarrekin jarduteko nahia galdu da. Hango arazoak hiriaren beste auzoetan aurkitu daitezkeen berberak omen dira. Auzo Elkartera hurbildu gara eta han Mari Carmen Cuesta eta Loli Alonsorekin hitzegingugu.



ZEIN IZAN DA AUZOKIDE ELKARTEAREN HISTORIA?

Gure elkartearen historiak gora-behera asko izan ditu. Elkarrekin egoitza eta fase ezberdinak ezagutu ditu, denetarik gertatu da. Junta berrikoek ez dugu oraindik dena ondo antolatu. Arazo askorekin egiten dugu topo, baina nagusienetarikoa bat jendearen interes falta da. Jendearen laguntzarik gabe, elkarrekin ezer gutxi lor dezake.

ZEINTZUK DIRA AUZOAREN ARAZO LARRIENAK?

Langabezia dugu arazorik larriena. Gaitz honek gure gazteria gogor jotzen du. Arazo horrek oso kezkatzen gaitu benetan.

ETA DROGAK? AUZO HONETAN DROGAREN ARAZOA OSO HEDATUTA OMEN DAGO.

Bai, egia da. Baina droga hemen eta Gasteizko beste auzoetan dago, ez da gure auzoko arazoa bakarrik. Koordinadora bat eratu genuen drogaren aurka; orain ahaztuta dago hori. Drogen asunto hau Laudioko enparantza bezalako tokietan oso nabaria da.

NOLAKOA DA EUSKARAREN EGOERA?

Oso latza. Helduetatik gehienak kanpotarrak dira eta ez dakite euskaraz. Gazterik gehienak ikastoletan egon diren arren, ez dute euskara kalean erabiltzen.



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

OLARIZU

Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18
Auzoko pintxorik onenak

ALDE ZAHARRA

S. Fco Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

ERDIALDEA

Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua

ra galdu duen auzoa

z
e
n
b
a
i
t

d
a
t
u

BIZTANLEAK:

30.000 inguru, batez ere kanpotik etorritakoak eta industrian dihardutenak.

HISTORIA:

Auzoaren historia duela hogeita hamar urte gutxi-gora behera hasi zen. Jende asko bertaratu zen, Euskal Herriak bizi zuen egoera onaren ispilu. Jaiotze tasaren hazkunde izugarria gertatu zen eta orduko umeak ditugu, hain zuzen ere, gaur egun langabeziak gehien erasotzen dituenak. Hazkundera azkar eta antolaketarik gabe egin zen Horren agerbide dira auzo osoan aurkitzen ditugun bloke berdintsu eta pertsonaliterik gabekoak.

BERDEGUNEAK:

Lorategiak han eta hemen aurkituko ditugu. Kirolak praktikatzeko aukera asko daude.

ELKARTEAK:

Elkarteen kopurua haundia da. Lehen oso aktiboak eta indartsuak baziren ere, gaur partaiderik gabe daude.

Arabako Auzo Elkarten Federakundea, Asistar Frantzisko Deunaren Lagunak, Extremadurako Etxea eta Gasteizko Langabetuen Asanblada bezalako elkarteak ditugu bertan.

Gasteizko langabetuen asanblada



GASTEIZKO LANGABETUEN

Asanbladak, orain hamairu bat urte sortua, "Langabetuen Tokia" deritzon lokalean du egoitza. Han giro ona, salneurri merkeak eta Pili Kintano bezalako jende jatorra aurkituko duzue. Berak azaldu zigunez, asanblada honek hamar pertsonen osatuta dago. Ondasunen banaketaren kontrako

ekintzak antolatzen dituzte. Beren egoitzan liburuak, aldizkariak, musika, txapak... eta horrelakoak ikusiko dituzue. Langabetuen arazoez ardurarik baduzue, Barazar Mendateko beren egoitzatik pasa zaitezte, ez zarete damutuko eta.



Umeak zaintzen ditugu

GOIZEZ

Beatriz 22 61 18
Iholdi 14 45 91
Nekane 26 91 53

ARRATSALDEZ

Oihana 25 30 35
Imma 24 22 41
Rafa 25 22 68

GAUEZ

Esther 27 84 57
Imma 24 22 41
Iholdi 14 45 91

ASTEBURUETAN

Olatz 25 61 20
Jose Angel 27 62 41
Eduardo 14 21 99
Saida 26 58 05


Zeu ere haurrak
zaintzeko prest baldin
bazaude, deitu ezazu 26
25 92 telefonora edo
idatzi 1691
postakutxara.

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ



Xabier
taberna
musika ona
eta giro
ezinhobe
Kutxileria 23



Pertsonaia ezkutua.

- 1- Gasteiztar guztiek ezagutzen dute.
- 2- Burusoila eta betaurrekoduna
- 3- Oinez ibiltzen da normalean.
- 4- Lagun minek Pepe deitzen dute.
- 5- Hego eta Ertamerikan izan da
- 6- Bere lantokian ez du alkoholik onartzen
- 7- Gasteiz erdian du bere bulegoa

Gasteizko alkatea



**Jarri
kenketa edo
batuketa,
egin behar den operazio
honetan**

7	4	8 = 11
8	2	3 = 13
6	3	1 = 2
9	6	4 = 11

**Har itzazu
margoak eta
emaiozu kolorea
irudi polit honi**



**Zein da
falta den letra ?**

M	A	H	A	•
E	Z	T	•	A
•	Z	K	•	N
M	•	H	•	A

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

UDABERRIA

elkartea

•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat


•Musika eskola
•Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

ean



Kaixo lagunok: GEU GASTEIZ hau zuen aldizkaria izatea nahi dugu, eta bertan zuen iritziak, lanak, asmoak, jokuak,... argitaratu nahi ditugu. Zerbait egin duzuela eskolan edo ikastolan eta hemen argitaratu nahi? Ba bidalguzue eta guk kaleratuko dugu. Bai, harakinari egindako elkarrizketa, klasean idatzitako poesia, bisitan joandako idazleak kontatu zizuenena,... Zuek nahi duzuenena. Baita irakurri duzuen eta gustatu zaizuen liburu baten berri, oraingoan guk egingo dugun bezala. Animatu eta bidali zuen kolaborazioak!!



GABONETAN Olentzeroak ekarritako liburu berrien artean badira hiru niri gustatu zaizkidanak, eta beraien berri emango dizuet.

ba... niri gustatu zait...



Urtegi misteriotua.

Mikel da liburu honetako protagonista, eta bere anaia bizkia urtegi- an ito zenetik ez da pertsona bera. Triste dago beti, ia ia ez du hitzik egiten (txakurrarekin ez bada) eta gainera bere gurasoek gizon edade- tu bat hartu dute etxean, agure berria... baina Mikel eta Paxkualen arteko harremanak lagunduko du urtegi-ko misterioa argitzen eta Iker, Mikelen anaiaren arima askatzen. Abenturazko liburua da, misterioa dauka eta istorioa ugari denak 70 orrialdetan zehar. Elkar argitaletxeko xaguxar sailean dago (10 urtetik aurrera)

Eddy Merckxen gupilak.

Liburu hau ez da haur txikientzat, hizkuntz aldetik zailtxoa izan daite- keelako (gazteentzako kolekzioan dago), baina kontatzen duen istorioa oso polita da. Liburuko protagonista gaztetxo bat da, Eddy Merckx txirrindulari ezaguna izan nahi duen gaztetxoa. Istorioak duela 20-25 urteko giroa isladatzen du eta Bilboko auzo pobre batean dago kokaturik. Gure protagonistaren etxera andaluziar bat, Joxe, etorriko da bizitzera eta gertaera honek aldatzen du gure mutilaren bizitza. Erein argitaletxeko auskalo sailean dago argitaratuta.

Ipuinkaria

Mikel da liburu honetako protago- nista, eta bere anaia bizkia urtegi- an ito zenetik ez da pertsona bera. Triste dago beti, ia ia ez du hitzik egiten (txakurrarekin ez bada) eta gainera bere gurasoek gizon edadute bat hartu dute etxean, agure berria... baina Mikel eta Paxkualen arteko harremanak lagunduko du urtegi-ko misterioa argitzen eta Iker, Mikelen anaiaren arima askatzen. Abenturazko liburua da, misterioa dauka eta istorioa ugari denak 70 orrialdetan zehar. Elkar argitaletxeko xaguxar sailean dago (10 urtetik aurrera)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

deportivos

AZOKA

kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 34
Gorbea 27
Ariznabarra 17

tfnoa: 24 75 04
tfnoa: 24 22 05
tfnoa: 14 71 33

Fax: 22 07 19



Izar berriak Mendizorrotzako zeruan



JOAN DEN URTETIK gure artean izen handiko jokalaririk bat dugu, "Musti" Mujika, alegia. Denboraldiaren hasieran beste bat gehitu zitzaion zerrenda horri, Athleticen, Burgosen eta Celtan ibilitako Joseba Agirre. Egun bakan batzu direla, lehen mailan jardun duten beste bi jokalaririk etorri dira Mendizorrotzara, Asturiasetik Euskal Herrirako bidea egin duten Gorriaran eta "Tati" atzelariez ari gara, jakina. Lauok elkartu ditugu eta jarraian doazkizue eurek egindako adierapenik mamitsuenak.

"Musti" Mujikak, Gorriaranek, Joseba Agirrek eta "Tatik" argi dute zertarako etorri diren Gasteiza. Gorriaranek hori ederki laburtzen digu honela: "Alaves ez igotzea porrota litzateke eta horretarako, noski, lan egin beharko dugu. Alaves orain dugu duela urte batzu Oviedo, Celta edota Compostela taldeak zeuden leku berean. Azken aldi honetan, ordea, lehen mailako talde sendoak ditugu horiek. Horixe izan behar du Alavesen helburuak".

Hala eta guztiz ere, lehen mailara igotzea ez da lan erraza. Lehenago bigarren mailara egin behar du salto Alavesek eta tartean play-off madarikatua dago. Orain arte Alaves taldea ondo aritu da erasoan baina taldeko arduradunek atzean zenbait akats ikusi omen dute. Horixe da fitxaketa berrien gakoa. Gorriaranek badaki hori. "Txutxi Aranguren puntako entrenatzailea da eta zerbaitegatik fitxatu gaitu. Taldeak golak erraz sartzen ditu; alabaina, atzean hobetu beharra dago. Ni horretarako nago hemen.

Alaveseko jokalariek harrera ona egin diete etorri berriei. Aldagelan giroa ona da, antza denez, bertan ez baitago inbidiarik. Joseba Agirrek eta Mustik fitxaketa berriak nabarmendu nahi izan dituzte, "oso per-

“Alavesaren benetako ordua play-offarekin batera etorriko da”

Alaves taldea eta play-offa ez dira lagunak. Igotzeko norgehiagoka horietan lau urte jarraian huts egin eta gero Alavesen inguruan gabiltzan guztiok play-off berriari beldur diogu aurten ere. Hori dela eta, Alaveseko zuzendaritza taldeak inoiz baino apostu handiagoa egin du talde berria osatzeko orduan. Izan ere, Arregi jaunak zuzendutako taldeak lehen mailan aritu diren jokalaririk ekarri ditu Gasteizera, jokalaririk langileak, esperientzia handikoak... GEU GASTEIZ-ek etorri berriei hitzegiteko parada izan du eta ez du alperrik galdu, alajaina.



Ismael Diaz de Mendibil



tsona onak dira. Taldearen jarduna hobetuko dute, ezpairik gabe". Musti urrutiago doa: "Aurten taldeak maila hobea du, konpetentzia handiagoa baita. Hala ere, hori futbol zelaiaren gainean erakutsi behar dugu".

Hogeita hamar urtetik gorako jokalariek

Lau jokalaria hauei erreparatuz gero, adinetan apur bat sartuta daudela ohartzen gara. Gauzak horrela, Mendizorrotzako harmailetatik oihuak entzuteko arriskua dute. Horrelakoa da futbola. Emaizak onak direnean esperientzia garrantzitsua dela pentsatu ohi dute zaletuek: txarrak badira, ordea, "alde hemendik, zahar halakook!" bezalako irainak entzun beharko dituzte. Jokalariek beraiek guk baino hobeto dakite hori. "Urteekin indar pittin bat gal dezakezu baina trukean beste gauza asko irabazten duzu", esan digu Mustik. Joseba Agirre bat dator Mustiren hitzekin, "ez dut uste guri horrelakorik gertatuko zaigunik, ni, esaterako, Gasteizera etorri naiz futbolaz gozatzer, nire ametsa karrera hemen amaitzea da. Pentsa, hiru urtetan lehenengo mailan egon gaitezke eta ez dago hori baino amaiera hoberik".

Kontuak kontu, Alavesen benetako ordua play-offarekin batera etorriko da. Zorte txarrari bizkarra nola eman ba omen daki Joseba Agirrek. "Golik ez hartzea da garrantzitsua. Defentsan seguruak bagara erasoan ez dugu arazorik izango, Alaves puntako taldea da, zaleek, hiriak berak.... Gasteizek hau baino gehiago merezi du eta geuk eman behar diogu".

Tatiren kasua bitxiena da. Bere jaioterria (Asturias) utzi eta Suediarantz abiatu zen ogi papurraren bila. Nork pentsatuko ote zuen Suedian aritutako jokalaria bat gure artean izatea? Berak ere ez zuen horrelakorik espero izango eta hemengo zenbait gauzek harritu dute gasteiztar berria. "Alavesari buruz ondo hitzegin didate baina bere azpiegiturak zur eta lur utzi nau, zelaia, entrenatzeko lekuak... Nik gasteiztar guztien ametsa bete behar dut, bigarren mailara igotzea hain zuzen. Hori egunetik egunera egin beharreko gauza da".

Hantxe, Ibaiako zelaietan utzi genituen gure protagonistak, giro onez eta farrezka. Hurrengo egunean, berriz, Sorian galdu zuten eta seguru asko irrifarra joan egin zitzaizen aurpegietatik. Halere, hil ala biziko partidua etortzeko dira oraindik: play-off madarikatuaz ari gara, jakina. Sei partidu, 540 minutu, 32.400 segundu.. Tarte txiki horretan Alavesen geroa egongo da auzian. Jokalariek taldea igotzea nahi dute, guk, zaletuok ere bai. Ea oraingoan suerteak laguntzen digun.



Liburudenda

Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ





Donato Alcalde "TATI"

- ☐ Jaioterria: Salinas (Asturias).
- ☐ Taldeak: Gijongo Sporting eta Suediako lehen mailako talde bat.
- ☐ Lehen mailan jokaturako partidu kopurua: Sportingen 1985etik 1993ra ibili zen; urtero batz best 35 norgehiagoka jokatu zuen.
- ☐ Suedian egon eta gero, Gasteizen etxean bezala sentitzen da. Bere hitzetan, "hemengo jendea oso irekia da, asturiarren antzerakoa, hitz batean"
- ☐ Gasteizera etortzean, ezere aurretik, Mendizorrotzako futbol zelaiko berdeguneak erakarri dio arreta.



"MUSTI" Mujika

- ☐ Jaioterria: Zumarraga, duela 31 urte
- ☐ Taldeak: Urola, Real eta A Coruña Deportivo.
- ☐ Lehen mailan jokaturako partidu kopurua: 171 Realan eta 105 Deportibon. Ohorezko mailan Realan 5 urte jokatu zuen eta A Coruña 2.
- ☐ Aukera egokitzen zaion bakoitzean euskaraz egiten du. "Esaterako, Aitor Arregi euskalduna izanik, nola ez diot euskaraz egingo ba?"
- ☐ Gehien gogoratzen duen norgehiagoka: Realak Madrileko Atletikoren aurka jokatu zuen Errege Kopako finala.
- ☐ Iazko denboraldian baino hobeto dihardu aurtengoan; entrenatzaile aldaketa ondo etorri zaio antza.
- ☐ Lehen mailako jokalarien artean: "Kodro, ez dago punta-puntako talde batean eta golegile handia da. Beste batzuek esatearren, Stoichkov, Laudrup, Bebeto edo Mauro Silva"

Joseba Agirre

- ☐ Jaioterria: Ortuella (Bizkaia), duela 30 urte
- ☐ Taldeak: Athletic, Burgos, Celta.
- ☐ Lehen mailan jokaturako partidu kopurua: 178
- ☐ Gehien gogoratzen duen norgehiagoka: euskal derbiak eta joan den denboraldian Celtak Zaragozaren aurka jokatu zuen Errege Kopako finala. Penaltietan galdu zuten galiziarrek.
- ☐ Lehen mailako jokalarien artean atseginen dituenak: denon buruan daudenak: Stoichkov, Laudrup... eta Celtan dabilen Vicente bezalako jokalaria, "34 urte eta operazio piloa bizkar gainean izanda ere, umetxoan ilusio berbera du eta hori miresgarria da".
- ☐ Entrenatzaile euskaldunak nahiago ditu, bere ustez, "egokiagoak dira Irureta eta Salva Iriarte Realean eta Athleticeen Heynckes eta Toshack baino".


Antonio Gorriaran

- ☐ Jaioterria: Bilbo, duela: 33 urte
- ☐ Taldeak: Real Oviedon 8,5 urte
- ☐ Lehen mailan jokaturako partidu kopurua: 198.
- ☐ Euskal Herrira etortzean hau esan du: "Etxera etorri naiz, euskalduna naiz eta Euskal Herrian ematen nituen oporrak. Gainera, gure herri honek Asturiasen antz handia du..."
- ☐ Oviedon aldagelako nagusia zen. Dena den, berak ez du horrelakorik onartu nahi, "ez, nire izaera da, nire ez naiz bidegabekeriaren aurrean isiltzen direnetarikoa; aurpegia eman dut beti. "
- ☐ Guztien gainetik, gauza batek erakarri zion arreta eta haxe da: "Alavesek Oviedok baino instalazio hobeak ditu. Lehen mailako talde askok ez dute Mendizorrotza bezalako berdegunerik eta entrenatzeko zelairik zela ibili behar izaten dute"

ARTE GALERIA
LOURDES UGARABE
Los Arquillos kalea,7
Tfnoa:(945)146261 • Fax:(945)143509
01001 GASTEIZ



KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK



MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

AMILAMIA
arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	E	N	B	E	I	T	A			L
2	L		E	G	A		T	A	L	O
3	E	R	E		M	A	I	T	A	
4	A	R	N	G	A		U	S	A	
5		A	E		K	A	R			A
6	A	N	D	E	R		I	A		
7	Z	I	O	N	A	T			D	O
8	E	A		A	T	E	Z	A	I	
9	D	R	A	M	A	T	I	K	O	
10	O		I		K	A	N	I	K	A

ZE HARRETARA:

1. Arabako bertsolari gazte bat. Aluminioa. 2. Berrogeita hamar. Euskarazko Gaitasun Agiria. Artoz egindako ogi. 3. Irlanda. Maitatu aitzaren infinitiboa. 4. Ardoa. Estatu Batuak. 5. (Ald.) Bizkaiko herri bat. Atzizki bat. Lehena. 6. Gizonezko izen. Ikasle Abertzaleak. 7. Neskekiko itanoan diot. Musika nota. 8. Eusko Alkartasuna. Atea zaintzen duena. 9. Drama duena. 10. Oxigenoa. Iodo. Puxtarria.

GOITIK BEHERA:

1. Hitza. Araba eta Nafarroaren mugako herriska. 2. Nitrogenoa. Irango. 3. Arabako mendialdeko herriska. Amnesty International. 4. Mediterraneo barneko itsasoa. Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua. 5. Kasik. Anarkistak. 6. Tarragonako autoetan. Mila. Lehena. Alfabeto grekoko ltra, euskaraz t eman duena. 7. Arabako mendialdeko herriska. Juramentu. 8. Denbora librea. Akitu hitzaren infinitiboa. 9. Beraz, bada. Mutilekiko itanoan, diozu. 10. Lo egitearen ondorioa. Lehena. Txar ez. Lehena.

irri eta farra



Landako urtegiari itotzen ari zanean:
- Lagunduu! Lagunduuuu! Ez dakit igeritan! Lagunduuuu!...
Handik pasatzen zanean andre batek:
- Koño! Nik ezta ez dakit, baina ez dot ohiukarik egiten!

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	E	N	B	E	I	T	A			L
2	L		E	G	A		T	A	L	O
3	E	R	E		M	A	I	T	A	
4	A	R	N	G	A		U	S	A	
5		A	E		K	A	R			A
6	A	N	D	E	R		I	A		
7	Z	I	O	N	A	T			D	O
8	E	A		A	T	E	Z	A	I	
9	D	R	A	M	A	T	I	K	O	
10	O		I		K	A	N	I	K	A

-Miren!! Zabaldu ezan lehioa freskua sar dadin!
Ta freskua sartu zanean ta telebista lapurtu.



- Aizu, Kepa! Zure ardiek erretzen al dabe?
- Ez.
- Ba, ordun, ikuilua sutan dekozu.




izozkiak

J A T E T X E A




Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ



Cercas Bajas, 8
Telefonoa eta Faxe 28 74 82
01008 GASTEIZ

kultur agenda ■ OTSAILA ■



Principal Antzokian

antolatzailea

babeslea



GASTEIZ EUSKALDUNA



HIRU DIRA hile honetan euskaraz ikusi ahal izango ditugun antzeslanak: bi helduentzat (Mephisto eta Ernesto izatearen garrantzia) eta hirugarrena haur eta gaztetxoei zuzendua (Robinson Crusoe) Klaus Mann-ek Mephisto obran Hirugarren Reich-aren garaian kokatzen den istorio hunkigarria azalduko digu. Maskarada taldea oso ezaguna da gure artean. Izan ere, euskarazko lehendabiziko antzeslanak talde honen eskutik ikusi ahal izan ditugu askok eta askok. Oraingo honetan *Ernesto izatearen garrantzia* antzeslana dakarkigute. Oskar Wilderen obra honek estreinaldiaren 100. urtemuga ikusiko du aurten. Beraz, ez galdu aukera! Gaztetxoek Robinson Crusoe antzeslan ezaguna ikusteko parada izango dute. Daniel Defoeren istorioan oinarritutako lana oso ezaguna da. Abenturarako bidaia paregabea, zalantzarik gabe!

Arteszena taldeak aurkezten du:

Mephisto

Otsailak 9, Osteguna • 8,30etan

Maskarada taldeak aurkezten du:

Ernesto izatearen garrantzia

Otsailak 28, Asteartea • 8,30etan

butaka: 1000 pta • 1. Anfiteatro: 800 pta • 2. anfiteatro: 600 pta

Ados taldeak aurkezten du:

Robinson Crusoe

Otsailak 19, Igandea • 6,30etan
Helduak : 600 pa • Haurrak eta



DATOZEN HILABETEETAN

Bagarek honako ekitaldi antolatuko ditu:

Otsailan:

Ipuin lehiaketako sari banaketa
Gipuzkoako sagardotegi batera afaltzera joateko irteera (18an, larunbata)
Mendi irteera

Martxoan:

Sukaldaritza ikastaroa
bertso-porno afaria

**anima
zaitez !**

Urtarrilaren 8ko Bertso saioan inkesta bete zutenen artean

hauek izan dira Andoni Egañaren Tximeletak Sabelean kasetaren irabazleak:

Jaione Ortiz de Landaluze
Argiñe Irizar

Irabazleokin GEU jarriko gara harremanetan.

**TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA**

Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ

giro ezin hobea !

**MOTRIKO
TABERNA**
PINTO, 16 - GASTEIZ



bisita gaitzazu !

**ihauterietan
ez zaitez
mozorrotu**

euskaldun izan!



OTSAILAK 24 OSTIRALA

20:30etan

Printzipal Antzokian:

Ihauterietako pregoia, Ana Luzia

Billateren esku

Fantasiatzko mozerro lehiaketa

Sarien banaketa

Konpartsen aurkezpena

OTSAILAK 25 LARUNBATA

11:00etan

Kotxe klasiko eta motor zaharren

konzentrazioa Enparantza Berrian

17:00etan

Karroza eta konpartsen

konzentrazioa Gasteiz hiribidean

19:00etan

Ihauterietako desfilea

19:30etan

Ihauterietako kalejira hiriko

oinezkoentzako esparruan zehar

23:00etan

Gaueko dantzaldia Arkako Plazan

OTSAILAK 26 IGANDEA

11:30etan

Karroza eta konpartsen

konzentrazioa Valladolid kalean

12:00etan

Ihauterietako desfilea

14:30etan

95. urteko ihauterietako sariak

banatu

19:30etan

Dantzaldia Enparantza Berrian

OTSAILAK 28 ASTEARTEA

19:30etan

Dantzaldia Enparantza Berrian

20:30etan

Sardina erre

20:45etan

Kaleko antzerkia Teatre de L'ull

taldearen eskutik

ihauterietak

JANARI KONTUETAN haragitarako zaletasun nabarmena dugu euskaldunok. Halere, baratzean eta itsasoan ibili luzea duen herria dugu gurea. Handik datorkigu Euskal Herriko sukaldaritzan egun dagoen mailara eraman duten hainbat plater goxo atontzeko lehengaia. Horra hor, jarraian, horren bi adibide eder. On egin!

Kalabaza krema

Osagaiak (sei mahaikiderentzat):

- kalabaza gorria: kilo erdi bat
- Piper berdea: ale erdi bat
- Azenarioak: 2
- Tipulak: 2
- Porru bat
- Baratxuriak: aleki bat
- Patatak: 2
- Tomatea: edalontzi bat bete
- Baratxuriak: aleki bat
- Olio: edalontzi erdi bat
- Ura eta gatza

Nola egin:

Xehatu barazki guztiak kalabaza salbu eta berotu su bigunez zartagin batean. Zuritu kalabaza eta patatak eta zatikatu. Barazkia goritzen hasten denean



gaineratu kalabaza eta patatak. Berotu guztia su bigunez lapiko batean eta gero, bota ura gainetik jakio erabat estali arte. Bota gatza eta gehitu horri guztiari edalontzia tomate. Su epelean eduki ordu erdi batez gutxi gorabehera. Pasatu jangaia lehenengo trumisetik eta gero iragaztontzitik kremak ahokera gozoa izan dezan

Kokotxak pilpilean

- kokotxak: 600 gr.
- Olio
- Perrexila
- Tipulak: 2
- Baratxuria
- Gatza

Osagaiak (sei mahaikiderentzat):

Nola egin:

Lapikoan ipini oliotan baratxuri xehatuak eta perrexila. Berotu su epelean goritu aurretik. Baretzen utzi unetxo batez eta gaineratu kokotxak. Hurbildu lapikoa berriro sutara eta gero kendu olio berriro erabili ahal izateko. Izan ere, olio hori berori saltsari pixkanaka-



pixkanaka erantsiko diogu, lapikoari atzera-aurrera eraginez.

Saltsa mahairatzeko gertu izango da behar den sendotasuna (maionesa arinaren adinakoa) lortzen denean.



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"Kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz



BURI EGUNA



ZER EGITEN DUZU
HIRU ATERKIEKIN?



≡, ≡, ≡!!
NIREAK
DIRA



BAI, ZERA!!
HIRU-
ROK?



BAI... BATA, AUTOBUSEAN AHAT-
TUTA UZTEKO; BESTEA NERE BAN-
KUAN GERA-
TUKO DA ETA HIRU
GARRENA EURLA
HASTEN BADA,
NERE BURUA EZ
BUSTITZEKO DA.




GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Barailbar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	





Arabak aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskuratu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

**Diputación
Foral de Alava**

Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Medio Ambiente



**Arabako
Foru Aldundia**

Herrilan, Garraio eta
Ingurugiro Saila